



HITZA#1 Euskal Herriko Garapen Kontseiluko iritzia

Beste turismo politika bat posible da!

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak turismoaren etorkizunari buruzko iritzia onartu zuen joan den udaberrian. 2021etik 2022ra bitartean Euskal Hirigune Elkargoarekin elkarlanean antolatu atelietan parte hartu duten 200 lagunengandik ideia handiak biltzen ditu.

50 urte eskasean, Euskal Herria turismo potentzial handia izateko bisita gehiegi jasotzera pasatu da, eta gaur egun, **erakargarritasun gehiegizko helmuga** da. Euskal Hirigune Elkargoaren sortzearekin, egungo ereduaren inflexioa espero da: **turismo arduratsu baterantz joatea, lurraldeari zinez on egingo diona eta euskal gizarteak igurikatzen duenari erantzunen diona.**

Aldaketa hori zenbait orientabidetan laburbiltzen da:

- jasandako turismo batetik hautatutako turismo batera pasatzea;
- udako turismo masibo batetik lau sasoietako turismo batera pasatzea, lurraldeko aberastasun natural eta kulturaletan oinarrituz;
- turismo-jarduera Euskal Herriko garapen ekonomiko, sozial eta kulturalaren zerbitzura jartzea;
- bezeroei erantzuteko politika batetik harrera eta eskaintza kualitatibo batera pasatzea;
- kanpainako turismoaren garatzea, guti garatua den lekuetan;
- turismoaren sustapenaren bateratzea, lurraldeak ahots bakar batez hitz egin dezan.

Gaur egun, Euskal Herriko turismoak turistek ustezko itzaropenak asetzera entseatzeko diren eskaintzen bidez funtzionatzen du, horretarako folkloreak karta jokatu behar baldin bada ere. Ataka gaizto horretatik ateratzeko, **lurraldearen eta bisitarien arteko harreman berri bat asmatu behar da**, tokiko eragileak harrera-estrategiaren muinean jarriz. Errezibitu, **lurraldearen errealitatea eta nortasuna** (bizia eta sortzailea), **deskubritzea ahalbidetzeko.**

Eskaintza berriak pentsatu beharko dira turismo arloko profesionalen eta sektore guzietako eragile sozioekonomikoen artean, herritarrak eta elkarteak inplikaturik, eta horiek beren lurraldearen eta turismo autentiko baten enbaxadore bihurtzen ahalko dira.

Sustapen politika berri bat ere abiarazi behar da, Euskal Herriko Turismo Bulegoa hasi den bezala, egiazko bizia duen lurraldearekin bat datorren diskurtso berri baten inguruan. Ahal bezain **modu kolektiboan eraiki beharreko kontaketa, lurraldearena,**

ahalik eta jende gehienarentzat eta, lehenik, lurraldeko biztanleentzat egokia izan dadin!

Garapen Kontseiluak proposatzen du lurraldeko turismo antolaketa bereizi baterantz joatea, **kostaldearen arintzeko, mendiaren zaintzeko, beste lurraldeen egokitzeko**. Lurralde batzuk garatu behar dira, hala nola Errobi-Aturri, Bidaxune, Amikuze, Baxenabarre. Beste batzuek erregulazio gehiago espero dute: arrakasta turistiko handia duten lekuetara joateko garraio publikoak, jendearen kopurua mugatzea...

Turismoak bere trantsizioa egin behar du, ekologia mailan, energia mailan, baina baita **kultura eta gizarte mailan** ere. Langile gero eta guttiagok nahi du sektorean lan egin, ez baitira behar bezainbat ordainduak eta ez baitute etxebizitzarik aurkitzen. Desagertzeko joera duen turismo soziala ere aipatu behar da. Bizkitartean, denentzako oporrak demokratizatu zituen eta nahasketa soziala bultzatu. "Aberatsen helmuga" besterik ez izatea onartu behar ote dugu?

Euskal Herriaren garapena abantaila bat da turismorako! Lurraldea antolatzen delako, bereziki Euskal Hirigunearen bidez, izen hori merezi duen garraio publikoaren eskaintza ukaiteko, autobusez eta trenez ere bisitatua izanen da. Kulturaren bizitasuna eta mendiko biziaren mantentzea ere turismo kualitatibo baten berme dira.

Turismo politika berri baten baldintza batzuk **politika publikoen zeharkako hurbilketa eta, nahi ala ez, gobernantza instituzionalaren argitzea dira**, turismoa eskumen partekatua delarik (Euskal Hirigunea, Departamendua, Eskualdea, Hiriak...). Euskal Herriko eskalak bakarrik harmoniza ditzake profesionalen mailaz igotzeko eta sustapenerako estrategiak.

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak dei egiten die arduradun politikoei, elkarrekin lan egin dezaten, beren tresnak parteka ditzaten, Euskal Herriari eta hemengo biztanleei kalte egiten dieten konkurrentzia instituzionalak iraunarazi ordez.